

THE PIANO

ALBERTO BARANDIARAN

Duela hogeita hamaika urte Canne-
seko zinema jaialdian estreinatu ze-
nean, *desio* hitzaren bidez definitu
zuten askok Jane Campionen *The
Piano* filma, emakume bakarti ba-
ten baitan piztutako desioaren isto-
rio gisa definitu ere. Baina harreman
hitzak adierazten du, benetan, Ze-
elanda Berriko zinema zuzendariak
maisulan honetan kontatu nahi izan
zuen poetikaren muina: protagonis-
tak bere alabarekin, bere senarrare-
kin, bere maitalearekin eta, batez ere,
bere pianoarekin duen harremana.
Harreman ezberdinak eta osagarriak
baitira denak.

Eduki zuen arrakasta dela eta, aha-
legin antzua irudituko zaio norbaiti,
akaso, filmaren hari nagusia deskri-
batzea, baina goazen: Ada, hogeita
hamar urteko emakume eskoziarra,
Zeelanda Berrira kondenatu dute eza-
gutzen ez duen lurjabe baten emaz-
te. Lurraren beste muturreko hondar-
tza gris eta haizetsuan lehorreratu da
alabarekin eta pianoarekin, marinela
zatarrek han abandonatu baitituzte
hirurak, olatuen menpe geratu diren
gainerako fardelak bezala. Pianoak
hartu du, berehala, filmaren zentral-
tasuna, eta senar ezezaguna haren
bila biharamunean iritsi eta pianoa han
utzi behar duela erabakitzen duenean,
Adaren begirada zorrotzean islatzen

Harremanak



den amorru eta erabakimenak gar-
bi iragartzen du ez duela sekula pia-
noa bakarrik hondatzen utziko. Hori
izango du hortik aurrerako afana. Ho-
rixen izango da bere bizitzari zentzua
emango diona.

Alabarekin duen harremana da
filmak harilkatzen duen lehena: Ada
mutua da, eta txikiaren bidez komu-
nikatzen da munduarekin. Filmaren
hasieran eta amaieran protagonistak
off-ean adierazten dituen gogoetak
ere ("entzuten duzun ahotsa ez da nire
ahotsa, nire pentsamenduen ahotsa
baizik"), ume baten doinu eta tinbre-
arekin adierazten ditu; protagonistaren
haragiztatzea irudi luke alabak berak,
baina atzerantz, haurtzarorantz.

Senarrarekin duen harremana pia-
noaren bidez azaltzen da: hasierako
hondartza bakartian bertan hark jar-
tzen dion debekuak (pianorik ez!) mar-
katuko du bien arteko lotura. Stewartek
berehala ulertu du emaztea eta musika
tresna banaezinak direla, baina ez da
iritsiko antzematera emakumea ba-
rruan duen grinaren nondik norakoak.

Maitalearekin duen harremana
desioak gidatzen du: pianoa Stewar-
ti erostea erabaki eta emakumea-
ri klaseak emateko eskatu dionean,
elkarrengana iristeko bide bat eskain-
tzen ari zaio gizona Adari, oraindik ja-
kin gabe. Eta adierazgarria da elkarren
artean pizten doan pasioak musikan
duen eragina: "zuk pianoa ukitzen
duzun bezala ukituko dizut nik gor-
putza". Hori da tratua, hori izango da
ikasgaia: gorputza deskubritzea. Eta
emakumearen eskuak, lepoa, sorbal-
dak esploratzen dituenen, pianoaren
musika leuna da, lotua, jarraia; bai-
na musua eman nahi dionean, kitto!
diotso emakumeak musika azkartuz
eta gogortuz, orkestra zuzendari bat
balitz bezala.

Adak pianoarekin duen harrema-
nak, berriz, pelikulan esan nahi den
guztia laburbiltzen du: munduarekin
eta gainerako bizidunekin bat egi-
teko edo bat ez egiteko bitartekari
ezinbestekoa zaio musika tresna.
Baina desioa handiegia bilakatu da
oihanean, eta pianoaren edo mai-
talearen artean erabaki behar due-
nean, alegia heriotzaren eta bizitza-
ren artean, bigarrena aukeratu du
emakumeak.

Zaharberitutako bertsio hone-
kin, Zinemaldiak omenaldia egiten
dio emakumearen erabakitzeko gaita-
suna sotiltasun eta sentiberatasun
handiz goratu zuen artelanari.

